

BETIKO LELOA

Ohean gaixorik dagoen aitona zaharrak bezainbeste inork ez du bere bizirik ixtimatzen. Bizia arriskuan daukanak maite du bizia.

Horixe berbera gertatzen zaio Euskal Herriaren bizia maite duen eskaldunari ere. Hiltzeaz dagoenak dio beldurririk haundiena heriotzari.

Izan ohi dira hiltzera doazenik jabetzen ez diren gaixoak. Badiara Herriaren bizirik beharraz eta nahiaz oharitzen ez diren eskaldunak. Irri eta iketa egiten diote Herriaren biziaz jokatzen eta arduratzen direnei. Aberaskumeen denbora pasako kezatasu txoro bat iruditzen zaie Herriaren bizia maitatzea.

Guretzat, berriz, pozkarria da eskaltasunaren berpizte hau. Ugaltzen ari dira eta sendotzen ikastolak. Gero eta eskal idazle hobeak, trebeagoak eta joriagoak sortzen ari dira. Euskal Herriak behin ere ezagutu ez duen mailara irixi dira zenbait aldzikari eta agintaldari. Bertsoaritzak eta abeslariak ere ez du ezagutu honelako egoerarik.

Behin ere ez bezala ugalduta dira kultur mintegiak, kultur asteak, udako eskual unibertsidadak, jaialdiak, bertso saioak eta abar. Asko eskaldunak dira herrietako jaiak berak ere. Ez ditzaieku aipatu gabe utz, arlo honetan, Donostiako eta Loiolako herri-irratia.

Pozkarria izan da guretzat eskal udalekuak gertutik ezagutzea. Badago lana latz egin duen jenderik hoiek aurrera ateratzeko. Eskara eta eskal gaiak hobeto ikasteko aukera izan dute mila eta hostehunen bat haur eskaldunek, aurtengo udan bertan.

Inoiz ez bezala sartu da eskal alorrean jende ikasia. "Euskaldun asko, bere hizkuntzagatik lotsatu ohi zen, eta eskara kultur bidetzat hartzea burutik ere ez zitzaion pasatzen..." "Egunotan kontzientzia berri bat esnatzen hasi da, gazte intelektualean. Baina abia hau gal ez dadin, eskal kultur inguru indartsu bat sorrerazi behar da, gure herriaren kulturadun guztiak beregaitzen ahal dituenak", dio Karlos Santamariak ala honetan bertan.

Asko egin da epairik gabe. Baina izugarria da oraindik egiteko dagoen lana. Barruti asko dago eskalduntzeko. Erdaltzaile ditugu, zoritxarrez, kultur bide gehienak.

Halere, ordea, oharatu gura ez dutela hala izan behar. Sar dadila eskara estadioren eskolatan, eskatu da oraindik orain Donostiako Udaletxeak. 1996garrenean, Larreta jaunak Gipuzkoako Diputazioan egin zuen eskabidea gogorazi digu oraingoko honak. Beste erabaki askoren artean hauxe erabaki zen batzarre hartan: "Euskaraz dakiten eskola maixuak sortzen ahalagindua, umei eskolatan erdararekin batera eskara irakatsi dieazaien." (RIEV I-103.orrian).

Geroztik erri asko egin du, Euskal Herriaren behintzat. Baina, erdara hutsan jarraitu dute estadioren eskolak. Ez da ezeren aldzikari izan. Eskabidehutsan gertatuko ote da Donostiako Udaletxearen hau ere?

Eskurtean ditugun lanak indartzen eta ugaltzen saiatu behar dugu. Berehalaxe datorkigu denoi ar berria. Laster amaituko dira udako jaiak eta oporrak. Z. Argiak ere arnasa piska bat hartzeko aukera izan du. Uztaillean eta Abuztuan aleak baknduz. Irailaren haseratik ekingo dio herririo, astero, tximto ateratzeari.

Ekin diezagion bakoitzok gure lanari. Honela bakarrik bortaxtuko ditugu besteak ere gure bidean sar ditazten.

DISTRIRAK KULTURAZKO HERRALDA

Herraldak da euskeraz «emi-grazio» delakoari ematen diogun izena. Bi herraldak mota dago, ordea, eta gehienetan bata ez dator beste gabe, biki sinkronikoak ez izan arren.

Herri batetan ekonomiazko esturturek populuari bizibideak ematen ez dizkiotenean, jendeak atzerrira egiten du ogi bila. Herria agortzen du, odol jarrio ikaragarri honak. Euskalherria asko penatu da —eta penatzen— gaitz horiengatik.

Baina beste herraldak mota bat bada, lehena baino kaltegarriagoa. Herri baten kultur inguruak, urri eta eskas delarik, kulturazalei behar duten buruzko janaria ematen ez dienean, beste kultur baten bila joan behar dute hauek, nahi ta nahiez.

Intelektual kulturak inguru eta saltsa egokiak eskatzen ditu: egiazko maixu, kreatzaila eta bilatzaileak; eztabaida eta kritikak; irakurle, entzule eta ikasleak; intelektualek azoka antzeko bat, eta beste gainerako gauza asko. Guzti horiek gabe, kultur biziak ez du izaterik, eta agortzen da. Hori omen da, hain zuzen ere, gure herriaren orain arte gertatu dena.

Euskal pentsalari eta idazlerik handienetan, zenbat izan dira euskeraz zientzia edo arte espresio bidetzat hartu dutenak? Gutxi baino gutxiagoak, eskuko behatzekin kontu daitezkeenak.

Lehen garai batez ezagutu genituen eskaldun gazte guztien arazo eta ametarik nagusiarena, erderaz ongi egitea izan ohi zen, letren bigarrena ekitan. Hala gertatu zen, esate baterako, gure bihurtzeko adiskide zen Arceche idazlearen kasuan. Hase-

ran, haren idazkien erdera nahiko zaila eta traketsa izan ohi zen; baina, onuan, gero eta hobeto ikasi zuen erdera erabiltzen, eta azkenik erdal idazle estimagarri bat izatea lortu zuen.

Erdararen herbesteartzen diren idazle eskaldunak inork ez ditu gaitzesiko. Kulturazko herraldak, urrutik datorren gizarteko gertaera bat da eta, ez omen dago edonoren eskutan honelako egoerari ihes egitea.

Euskaldun asko, bere hizkuntzagatik lotsatu ohi zen, eta euskeraz kultur bidetzat hartzea burutik ere ez zitzaion pasatzen.

Herriko mintzaira gutxiesea, Euskalherriaren ez ezik, beste alde askotan gertatu da. Cervantes handiak bere biziko hizkuntzaren desestima salatzen zuen, bai eta —gauza harrigarri dena— euskaldunak euskeraz idazteraz deitzen ere. «Todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en su leche y, siendo esto así, razón sería que no se desestimara al poeta alemán porque escribe en su lengua, ni al castellano, ni siquiera al vizcaíno que escribe en la suya».

Egunotan kontzientzia berri bat esnatzen hasi da, hortaz, gazte intelektualean artean. Baina abia hau gal ez dadin, eskal kultur inguru indartsu bat sorrerazi behar da, gure herriaren kulturadun guztiak beregaitzen ahal dituenak.

Hau lortzeko nola jokatu behar dugu? Holako inguruaren kondizioak nolakoak izan beharko dira? Komeni izanen litzateke problema hau ongi atertzea.

Karlos Santamariak

Txinpantzea: gure anaia bizkia

Txinpantzeak eta gorriak begirata, nor ez da inoiz zozotan harriturik geldituko? Gorriaren zenarka bidegira da, izan ere, aharren diren xumekeria horietakoa. Eta txinpantzearen eskuak eta irriak ikusita, nor ez du barne kezkarik sentituko?

Europatar zibilizazioak eman digun segurkerria gu oker finkaturik, ordea, aisa baztertu izan ditugu kezka izpi horiek mende eta mendetan barrena; eta geure korako esan izan dugu: «bai, bai, zerbit ematen dik; baina gu besterik gaituk, gu bestelakoak gaituk halere». Eta antropozentrisismoari eutsi diogu, eta geure buruz harropuzturik jarraitu.

Aspaldikoa da Darwin. Eta haren teoria bere hartan eta osoan onartu ez bada ere, geure egiazko maila artiztertik gertuago gauden gaur, hari esker, orain dela ehun urte baino. Gero eta azkar-kiago bultzatzen du zientziak joera horretan; eta azken-aurkeko «Psychologie» hilabetekariak x e h e k i azkulo duenez (ikus 52. zenb., 1974-eko Maiatzakoa), J.D. Fleming-en artikulua, 6-15 orrialdeetan) beste frogabide harrigarri bat badugu gaur txinpantzearen (eta primatue guztiengun, noski) geure anaia bizkiak antzemateko.

Neure izkiru hau sobera ez lutzatzen. Fleming-en artikuluan bertan irakur daitezkeen xehetasunak ez ditut hemen emango. U.S.A.-ko saiaketa horien funtsa hitz gutxira bildu nahi izanez gero, hau izkiria nekez ausaz: gaur egun frogatua dela txinpantzeak mintzamen baduela, txinpantzeak hitz egiten ikas dezakeela alegia; eta 1979-ko 25 txinpantze izango direla mintzamenaz hornitua (gaur badira hamar bat), eta beharbada elkarrizkera hori erakusten hasiak.

Jakina: txinpantzeak ezin dezake ahozko hizkerarik erabil, horretarako abots-tresna egokirik ez duela. Gardner-tarren idazle argitsua, horretara, hau izan zen: zergatik ez gor-mutuen esku-hizkera erakutsiko?

Eta mintzabide hori ematekotan abiatu ziren 1966an Gardner enar-emateak Washoe txinpantze-emearekin (aspaldian beste artikulua batetan aipatu nuen), eta Ameriketan gizakumekik erabiltzen den esku-hizkera ofiziala hautatu zuten mintzabidezat: «A.S.L.» delakoa, American Sign Language. Washoeren aurrean horixe erabiltzen zuten beren artean ere, eta ez besterik. Txinpantzeak, horrela, A.S.L. esku-hizkeraren murgilduta aurkitu zuten bere burua; eta hilabeteetan barrena hitz-keta hauek ikasi zituen.

Lehenengo 7 hilabeteetan=lehenengo 4 hitzak «Washoe oso gaztea zelarik»

Ondoko 9 hitz hilabeteetan=beste 9 hitz gehiago

Ondoko 21 hitz gehiago

Ondoko 15 hitz hilabeteetan=beste 51 hitz gehiago

Ondoko 12 hitz hilabeteetan=beste 75 hitz gehiago

Guztira:

4 urtetan, beraz = 160 hitz!

Beste erakapidez desberdin batzuk erabiltz, ikas-abia bertsuak neurtu dira hezaldun ari diren beste txinpantzeengan: Sarah, Eli-zabeth, Peony, Bruno, Boocce, Salome, Ally, Lucy, Lana...

Harrigarria ez da, halere, hitz-kopuru handi horien ikastea bere, hitzegi berririk ikaspideta eta erabil-bidea bertatik atertzeak erakusten dituna baizik.

Alde batetik hau ageri da: txinpantzek badutela sekula entzun edo ikusi ez dituzten hitz-zenketeak sortzeko doahina: hain zuzen ere, Chomsky-k hizkuntzaren gako-trat daukan dokaina. Washoe-k, beraz, sekula ikusi ez zituen ahatzak izendatu nahiz, «ur-txori» hitz-segida asmatu zuen bere kabz; eta maite ez zuen makako galzto bat izendatzerakoan, sekula ikasia ez zuen «ximu-zikin» hitz-bikotea botatu zuen zipla, eta behin eta berriz ondoko egunetan eta makakoari buruz xoilki.

bat dakar ondotik hitz-sail horretan guztian. «Gerezi» hitza ikasteak, esate baterako, bi partetan zatituko frutuen multzoa: alde batetik «gerezak» beretzen zituen Washoe-k, eta bestetik gerezi ez diren gainerako «frutu» guztiak.

Hirugarrenetik, txinpantzeak badu, ageri denez, «kategorik-ikuskerak» delakoa: alegia, izaki antzekoak gutxi gora-beherako mardotan sailkatzeko edo taxutzeko ahalmena. «Zabalik» hitza ikastea, esate baterako, frigo-atei buruz erabiltzen zuten hitza haseran, «kaxkaxi» zitaion kasuan zehazki beraz (frigo «ezabalik» dago, edo ez dago, edo abar). Baina esku-kinu berbera erabiltzen du gaur Washoe-k la-tak zabalik daudela adierazteko, eta gauza berbera armaru-kajoieki buruz ere; eta, baita hau ere, eta hauxe harrigarria, iturri buruz mintzo delarik! Txinpantzearen abstrazio-mena agiriari gelditu da beraz: zeren-eta iturri batetik ura pasatzeak eta frigo baten atea zabalik egoteak ez baitute, kanpoko iturriari dagokionez, batere antziki!

Hitzen segida edo taxukerari dagokionez, azkenekorik, txinpantzeak gauza da, aurkitu denez, bi hitzen segidaren axolaz jabetzeko: A-B segida, alegia, ez dela B-A segida bera. Eta hau oso inportantea da hizkuntza askotan: frantsesez, gonbarazio batez, «Pierre frappe Jean» eta «Jean frappe Pierre» ez dira gauza bera! Sintaxi-kontuan, horrela, hitzen segida berezi aldi izatea funtsezkoa izanik, txinpantzearen ahalmen hori oso garrantzitsuzat jotzen da.

Txinpantzeak eta guk, hitz batez, azken funtsean, bide berberetik lor-

tzen bide ditugu hizkuntzaren ikaspena eta erabilera.

Txinpantzea, bestela esatekotan, zinez da gure anaia bizkia; eta ez ituraz bakarrik.

Ondorio ezin larriagoak dakazki honek antropologiari buruz. Zeren-eta txinpantzeak eta gizona anaia bizkiak baldin bagara, eta gaur arte antzematen ez zen heinean anaia gainera, txinpantzeak eta gizonak Kosmoan patu edo bestekizun gutziz desberdinak ditugula pentsatzeko arazoinik ez baita zientzian funtsean ahal. Eta bai, hain zuzen, bestela dela sinesteko oinarri sendorik.

Beste ondorio sakon bat beste-rik ez aipatzen, txinpantzeak eta gizona anaia bizkiak baldin bagara, hor nunitai bere orangutana eta gorila; eta lehengusu-edo bederen Camboje-ko jiboiak. Gauzak horretara, ordea, zergatik ez somatuko zakurraren ere herengusu edo laengusuren bat bederen badukela? Zergatik ez? Zergatik ez sendikeraren aldetik ere? Eta Colette-ren esaera famatuak («un chien est un coeur entouré de poils») zientzi-oinarria hartzen du bapatean; eta alimaliekiko errespeta eta maitasun-beharrak (Euskal Herriaren gure latsagarriro ahantzi!) arras bestetarik funtsean.

Antropomorismo harroak aldebat uzteko premia, berriz ere, ezinbesteko urrats gisa agertzen zaigu. Noiz ikasiko ote dugu, ordea, Kosmoan tokatu zaigun postu apala eta igarokorra bere horretan eta bere egian apalki iresten eta ones-ten?

LARRESORO

GASTEIZ 1974

Behar bada, betiko topikoekin bueltaka gabiltzala esango du norbaitek, baldin gure Gasteiz, Arabako iriburua, itsusitzen eta zatartzen ari zaigula esaten badut. Baiñan, zorrigaitz, txapel gorri zain txapel txuri dela, ez dago inorixok ukatzerik.

Gure iriak, Espainiako Estaduari gagozkiorarik, azkunderik bizkor eta arrigariena ezagutu du. Hortan lehenengo izan da azken urte hauetan, onerako, eta txarrerako ere. Industria aldetik, forutasunak mesede aundia egin dio Arabari, Nafarroari egin dion bezalaxe. Nafarroaren industriatzea —betiko listillo eta buru beroen tesison gaitetik—, ez bait daiteke konpreni forutasunik gabe. Bestaldetik, eta neurri aundi batez, Arabako industriari zati dextentea Bizkai eta Gipuzkoako industriaren adarra besterik ez da.

Bizkai eta Gipuzkoako industriaren adarra izateak gauza onki ekarri izan dio Arabari, bide horitalk euskeraz egiten duen jende asko etorri bait da Gasteiza. Horrez gainera, Gasteizek halako indarra duela, inguru errietako jende asko etorri da honera bizitzera. Hemen ere alde onak eta txarrak; alde batetik Araban makrozefalismo izugarri bat gertatu da iriburuarekin, Arabako biztanlerik gehienak hemen, Gasteizen, bizi bait dira, pillaturik, egunetik egunera gero eta zatarrago egiten dituzten rietan. Bestetik, aldi, jende eustexte-monstruo eta arraskalduz hokalduna ere etorri da. Aretxabalekua, kasu.

Ezin ukatuzkoa da, desarrollo edo azkunde bizkor eta dextentea ezagutu dugula azken urte hauetan. Baiñan, bildur gara, Bizkaiaren eta Gipuzkoan gertatu dena gertatuko ote den, eta, azken finean, subdesarrolloan geldituko ote garen. Hemengo jende batzuk kezka-za azaldu dira, eta, alde hontatik, irakurgarri izaten da Komertzio Ganbarak illero-illero argitaratu ohi duen aldzikaria.

Baiñan kontzientzia, benetako kontzientzia, Bizkaiaren eta Gipuzkoan (eta zer esanik ez Nafarroan, azkeneko huelgak lekuko), urri xa-

marra da. Edozein tontolapiko detorkigu eta (Amando de Miguel itzaldi bazeen, kasu), gure ekonomiar buru mintzaten asten delarik, gure ekonomia gora ari dela eta sekula baino dinamikoagoa dela esaten digu abaila osoan («Ez al da jendea hona lan bila etortzen ala?»). Eta, bitartean, Gasteizen, Euskalherriaren jaiok, Egoaldekoko lau probentzietan jaiok, ez gara 10-dik 50.era allegatzen. Eta, alde hontatik, illun xamarra ikusi behar da geroa. «Poligono de Laku» delakoa millaka jende pillatuko da laster; beste «Poligono Industrial» bat asiak dira prestatzen, eta bertan gure erriarendako baturer interesgarri ez diren haibat lantegi kokatuko dira. Batzuetan, beharrezko prozesoa, kapitalismaren buruko prozesoa; beste batzuetan, ordea, desauskaldunete sistematik baten pausok, luzaroko zapalkuntza baten segurtzeta-aren pausok.

Etor zaitezte Gasteiza eta ikus. Ikus karreterak, kaleak, etxeak; ikus umeak, jostatzeko lekurik gabeko, ikus jende adinekoak, jubilatuek, berentzako atsedeen-toki eta lantokirik gabe (arazo gontzen ari dira parrokietan lan ezituz), ikus erdal eskolak, ikus arbolak, lurren boteak, ikus kanpoko arkitekto, sendagille, funtzionarioak...

Hau da nunitai aldatu behar dugun egoera. Gure erriak aspaldian erakutsi du aldatze nahia. Baiñan berbetan eta txorakerietan jarraitzen bagara arako gara. Azken amar-amarost urteoteko historia berriro berritzen badugu, akabo. «Guardias y ladrones»-ko jokabideak baztertu beharrik dira, baldin eta gauden zulotik atera nahi badugu behintzat. Belarrik duenak entzun beza.

BAJAURI

